

Heldu eta usteldu, horra koska!



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Klimaterikoak diren fruituek landaretik askatu eta bildu eta gero ere heltzen, umotzen, ontzen, zoritzen, alegorritzen jarraitzen dute. Fruitu horiek erabat heldu gabe bil daitezke; ondoren, azkarxeago edo mantsoxeago, helduko dira. Ez klimaterikoak direnak, landaretik bildu eta gero ez dira gehiago helduko, asko jota kolorea aldatuko dute, baina ahosabairako ez dira onduko. Horra koska! Izan ere klimaterikoa grekoko *klimater*-etik dator, "koska", hurrengo koska edo maila, alegia.

Klimaterikoek arazo handia dakar-te: kontserbatzeko zailtasuna, heltzen jarraitzeko tematze horregatik. Heltze hori fruituak berak sortzen duen gas batek eragiten du, etilenoak. Gas hori fruituen ingurutik kentzea komeni da, konturatzeko denak heldu eta usteltzeko bidea hartzea nahi ez bada. Fruitu horiei luze eusteko, aireberritzen den tokian jarri. Klimaterikoak dira: sagarra (*Malus x domestica*), arana (*Prunus domestica*), ahukatea (*Persea gratissima*), banana (*Musa spp.*), meloia (*Cucumis melo*), angurria (*Citrullus lanatus* var. *lanatus*), udarea (*Pyrus communis*), toma-tea (*Lycopersicon esculentum*), mertxika



(*Prunus persica*), irasagarra (*Cydonia oblonga*), kakia (*Dyospiros caqui*), ahabia (*Vaccinium myrtillus*), pikoa (*Ficus carica*), kiwia (*Actinidia deliciosa*), abrikota (*Prunus armeniaca*) eta abar.

Ez klimaterikoak diren fruituek ere badute alde txarra: heldu arte landarean izan behar. Behar bezala heldu aurretik fruituari landarea kentzen bazaio, bere horretan geratuko da, eta ondu gabe usteltzera joko du. Ez klimaterikoak dira: masusta (*Rubus fruticosus*), laranja (*Citrus sinensis*), mandarina (*Citrus reticulata*), gerezia (*Prunus cerasus*), anana (*Ananas comosus*), limoia (*Citrus limon*),

fruitu ez klimaterikoak ez dira gehiago heltzen behin landaretik bilduta. Asko jota kolorea aldatzen dute, baina ahosabairako ondu gabe. Argazkian, mizpira (*Mespilus germanica*).

mahatsa (*Vitis vinifera*), marrubia (*Fragaria x ananassa*), oliba (*Olea europaea*), mingrana (*Punica granatum*), mizpira (*Mespilus germanica*), mizpira japoniarra (*Eryobotria japonica*), mugurdia (*Rubus idaeus*), piperra (*Capsicum annum*), luzokerra (*Cucumis sativus*), arabisagarra (*Citrus paradisi*), kuiak (*Cucurbita spp.*), kuiatxoa (*Cucurbita pepo*), alberjina (*Solanum melongena*) eta abar. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakob. *Veza* soloari buelta eman ostean ortuariak landatu edo erein baino lehen karea dantzatzea egoki?

Juan de Atxirika (Muruetza)



Zalkearen lorea.

ALVESHGASPAR-CC BY SA

Kaixo Juan. *Veza* deitzen duzun hori *Vicia sativa* dela uste dut. Gaztelaraz *veza* eta *arveja* deitzen zaio. Euskaraz zalkea, eta duela gutxi esan didatenez txirta.

Lekaduna da zalkea, beraz lurra nitrogenoz aberastu egiten du. Bere ostean ondoen etorriko diren ortuariak hostoa aprobetxatzen diegunak dira: eskarola, zerba, letxuga, ziazerba...

Kareari dagokionez, jeneralean nitrogeno asko dagoen lurretan mesede handia egiten du. Dantzatu lasai. Nahi baduzu errautsa, kareharri xehetua edo kare bizia edo hila erabili.